

Basauriko Udalak Trintxera kaleratu du

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 05/03/2025

Espazio honek San Fausto eta Kaleroko bizilagunak antolatzeke balio zuen, etxebizitza galtzeko arriskuan baitaude.

Gaur, goizeko lehen orduetan, Basauriko Udalak udaltzaingoa bidali du Trintxera desalojatzeraz, eta hauek lokaleko atea behera bota eta desalojoari ekin diote. Lokal hau Batu Etxebizitza Sindikatuak antolatutako San Fausto auzoko bizilagunen borrokarako topagune izan da. Hamaika familia hauek etxeak galdu ahal izateko egoeran daude, izan ere, Atxalar etxebizitza-jabe handiak, Destilería Acha enpresaren jabe den familiaren higiezin taldeak, beraien etxeetatik bota nahi ditu, Basauriko Udalarekin batera. Orain baita ere Kaleroko auzokideak antolatzeke espazioa izan da. Urtarrilaren amaieran Basaurin (Bizkaia) gertatutako sute batek etxerik gabe utzi zituen 30 bizilagun baino gehiago. Udalak zaintzapean hartu zituen herritarrak, eta Ibis Budget hotelean eman zien ostatua. Batu etxebizitza sindikatuak jakinarazi duenez, baina, **bihar osteguna utzi beharko dute hotela**, "etxebizitza alternatibarik izan edo ez". Horren ordez, 2.460 euroko laguntza irrigarria emango diete.

Batu etxebizitza sindikatuak salatu duenez, urtebete baino gehiago daramate Udalari eskatzen San Fausto auzoko bizilagunentzako birkokatzeak negoziatzen. Hala eta guztiz ere, erantzun guztiak negatiboak izan dira. Hori gutxi ez balitz, Kaleroko kasua erakusten ari dela Udalak nola jokatzeko duen urgentziatzeko egoeran dauden Basauriko bizilagunen aurrean salatu dute: "Konponbideak aurkitu beharrean, auzotarren antolamendu-guneak desegin eta husten ditu".

<https://eh.lahaine.org/basauriko-udalak-trintxera-kaleratu-du>